

XXVIII. ESKOLA
ARTEKO
OLINPIADA 2026

ARAUDIA

KIROLEZ KIROL

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026

KIROL KATEGORIAK

KIROLA	AURRE BENJAMINAK Jaiotze urtea 2018-19	BENJAMINAK Jaiotze urtea 2016-17	KIMUAK Jaiotze urtea 2014-15	HAURRAK Jaiotze urtea 2012-13
ATLETISMOA	X	X	X	X
XAKEA	X	X	X	X
SOINKETA ERRITMIKOA	X	X	X	X
IGERIKETA	X	X	X	X
ESKUPILOTA	X	X	X	X
TENISA	EZ	X	X	X
ARRAUNA	EZ	X	X	X
PADEL	EZ	X	X	X
ARETO FUTBOLA	X	X	X	EZ
SASKIBALOIA	X	X	X	EZ

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026

ARAUDI OROKORRA

1. Euskera erabili ahal den neurrian.
2. Errepikatzaille bat bakarrik izango du jokalekuan egoteko aukera. Dagokien kurtxoan jokatu ahal izango dute, baina adinaren arabera dagokien kategorian jokatzeari gomendatzen da.
3. Ahal den neurrian, talde MISTOAK osatu behar dira, kategoria bereko adinak eta generoak nahastuz.
4. Ez da ez irainik eta inori errespetua galtzerik onartuko.
5. Araua urratzen duten taldeek lehen TXARTEL BELTZA izango dute. Jarrera berean jarraituz gero, bigarren TXARTEL BELTZA izango dute eta partida galtzea ekarriko du eta puntuak talde aurkariak jasoko dituzte.
6. Ikasle bakoitzak 2 kirolekin eman ahal izango du izena, bata taldekakoa eta bestea banakakoa.

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026 ARETO **FUTBOLA**

ANTOLATZAILEA: SANTURTZIKO ARETO FUTBOL KLUBA

KATEGORIA:

- **AURRE BENJAMINAK: 2018-19 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**

ARAUAK:

1. Zentro bakoitzak nahi beste talde apuntatu ahal izango ditu. Ahal den neurria, talde MISTOAK osatu behar dira.
2. Txapelketa kanporaketa-bitartez jokatu da eta partida guztiak Mikel Trueba kiroldegian jokatu dira.
3. Talde bakoitzak **gehienez 12 jokalaria** izango ditu eta **gutxienez 8**. Izena emandako guztiek jokatu beharko dute gutxienez partidaren zati batean eta iraupen baliokidean. Hori partida bakoitzean. 15 minutuko 3 denbora egongo da. Lehenengo denboran talde batek jolastuko du. Bigarren denboran, talde desberdina jarri behar du zelaian. Eta hirugarren denboran, entrenatzaileak nahi dituen jokalarien artean aukeratu ahal izango du.
4. Talde bakoitzaren arduradunak ziurtatuko du taldekide guztiak **dagokion kategorian daudela**, bai eta jokalaria guztiak **eskola-zentro horretakoak direla** ere.
5. Aulkian dauden jokalariez gain, **taldearen ardura duen heldu batek** egon beharko du partidari, **16 urtetik gorakoa** bera edo 2 GEHIENEZ.
6. Talde bakoitza bere ekipamendua eramaten saiatuko da.
7. Eskabideetan **ikastetxearen izena, ekipoaren izena**, ekipamenduaren kolorea eta **arduradunaren izen-abizenak eta telefono-zenbakia** agertuko dira
8. Izena emateko orria aurkeztean, folio batean izena emandakoen **gaur eguneko argazkiak** aurkeztu beharko dira, bakoitzaren izen-abizenak eta jaiotze-urtea dagokien laukitxoan jarrita.
9. Aurre benjamin kategorian atezain bat eta 5 jokalaria arituko dira; gainerako kategorietan, berriz, atezain bat eta 4 jokalaria.
10. Antolatzaile-taldea epailea izango da ohiz kanpoko edozein egoeratan eta beraiek esandakoa beteko da.
11. Parte hartzen duten taldeek txapelketa horren arau guztiak beteko dituzte. Horiek urratu edo arestian zehaztutako guztiari buruzko zalantzarik balego, eskolarteko areto-futboleko araudia ezarriko da.

12. Lesionatzeko arriskua saiheste aldera, EZ DA TAKODUN BOTARIK ONARTUKO XXVII. Olinpiadako partidak jokatzeko. Atal honetan klub antolatzaileak aholkatzen du areto-futboleko zola laudun kirol zapatilez jokatzea.
13. Ez da ez irainik eta inori errespetua galtzerik onartuko.
14. Araua urratzen duten taldeek lehen txartel BELTZA izango dute. Jarrera berean jarraituz gero, bigarren txartel BELTZA izango dute eta partida galtzea ekarriko du eta puntuak talde aurkariak jasoko dituzte
15. Eskola zentro bakoitzak heldu bat aukeratu beharko du diziplina horretan izena emandako talde guztien koordinatzaile gisa jardun dezan. Horrez gain, izena ematean adierazitako datuen benetakotasuna ziurtatuko du.
16. Kiroldegiaren eskabide ofizialean emandako izenak baino ez dira aintzat hartuko, talde bakoitzeko bat.
17. Ezin **izango** da errepekarik egin, ez bada aldez aurretik programatutako partida guztietan parte hartu.

Kanporaketak martxo, apiril eta maiatzean izango dira eta finalak ekainaren 6an (10:00etatik 14:00etara arte).

HAUR kategoria kendu da eta AURRE BENJAMIN kategoriako taldeak promozionatzea gomendatzen da, horiek baitira Bizkaiko Foru Aldindiak antolatzen duen Eskola Kiroleko Futbol 5 modalitatean parte hartu ezin dutenak.

Izena emateko azken eguna martxoaren 18a izango da.

Kirol hau ezagutu nahi duten umeak, Mikel Trueba kiroldegira etor daitezke astearte eta ostegunetan 18:00ean.

OHARRA: Joko garbia, eta portaera ona lehenetsiko dira, eta helburu nagusia zera izango da, parte-hartzaile guztien ERRESPETUA.

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026

TENISA

ANTOLATZAILEA: SANTURTZIKO TENIS KLUBA

KATEGORIAK:

- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
 - **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**
 - **HAURRAK: 2012-13 URTEETAN JAIOTAKOAK**
-
- Neskek eta mutilek jokatuko dute
 - 1. txanda: 4 jokaldira heltzen den taldea sailkatuko da.
 - 2. Txanda: 6 jokaldira heltzen den taldea sailkatuko da.
 - Aurrefinalak: 9 jokaldira heltzen den taldea sailkatuko da.
 - Finalak: Benjaminak: 9 jokaldi.
 - Kimuak: 2 set, Tie-break eta guzti.
 - Haurrak: 2 set, Tie-break eta guzti.
 - Kanporaketak behar besteko aurrerapenarekin deituko dira, eta jokoaren hurrenkera gordeko da. Aurkezten ez denak kanporaketa galduko du.
 - Antolatzaile-taldeak bitan banatuko du izen-ematea: Parte hartzeko “A ibilbidea” eta “B ibilbidea” eskolako lizentzia edo federatua dutenentzat.
 - Kanporaketak maiatzean izango dira, Mikel Trueba kiroldegian.
 - **Finalak ekainaren 6an, larunbatarekin, jokatuko dira 9:30etik 13:00etara bitartean.**

Kirol hau ezagutu nahi duten umeak, tenis pistara etor daitezke apirilaren 22, 23, 24, 25, 28, 29 eta 30ean 17:30ean.

Derrigorrezkoa da abisatzea, pista erreserbatzeko eta monitore bat egoteko.

Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026 **ATLETISMOA**

ANTOLATZAILEA: SANTURTZIKO ATLETISMO ESKOLA

KATEGORIAK:

- **AURRE BENJAMINAK: 2018-19 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **HAURRAK: 2012-13 URTEETAN JAIOTAKOAK**

AURRE BENJAMINAK:

- 50 METRO LEUN
- 300 METRO LEUN
- LUZERA.

Mistoa izan daiteke

BENJAMINAK:

- 60 METRO LEUN
- 400 METRO LEUN
- LUZERA.

KIMUAK

- 60 METRO LEUN
- 600 METRO LEUN
- LUZERA.
- ERRELEBOA 4x100

Mistoa izan daiteke

HAURRAK

- 80 METRO LEUN
- 800 METRO LEUN
- LUZERA.
- ALTUERA (koltxoneta edukitzearen mende).
- ERRELEBOA 4x200

ATLETA BAKOITZAK BERE KATEGORIAKO BI PROBATAN EMAN BEHARKO DU IZENA.

Kirol hau ezagutu nahi duten umeak, atletismo pistara etor daitezke maiatzeko astelehen, asteazken eta ostiraletan 17:30ean.

Finalak ekainaren 6an, larunbatarekin, Mikel Trueba kiroldegian izango dira 10:00etatik 14:00etara arte.

PROBEN ORDUTEGIAK:

ORDUTEGIA	KATEGORIA	PROBA	GENEROA
10:30etan	Aurrebenjaminak	Luzera	Mutilak eta Neskak
10:30etan	Benjaminak Kimuak Haurrak	Abiadura 50m Abiadura 50m Abiadura 60m	
10:50etan	Benjaminak	Luzera	Mutilak eta Neskak
10:50etan	Aurrebenjaminak	Abiadura 50m	Mutilak eta Neskak
10:50etan	Kimuak Haurrak	600m 800m	Mutilak eta Neskak
11:10etan	Haurrak	Altuera-jauzia	Mutilak eta Neskak
11:10etan	Kimuak Haurrak	Luzera	Mutilak eta Neskak
11:10etan	Aurrebenjaminak	300m	Mutilak eta Neskak
11:30etan	Benjaminak	400m	Mutilak eta Neskak
11:50etan	Kimuak Haurrak	4x100 erreleboa 4x200 erreleboa	Mistoa

Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026 **IGERIKETA**

ANTOLATZAILEA: SANTURTZIKO IGERIKETA KLUBA

KATEGORIAK:

- **AURRE BENJAMINAK: 2018-19 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **HAURRAK: 2012-13 URTEETAN JAIOTAKOAK**

Honako proba hauetan hartu ahal izango da parte, bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen kategorietan:

1-. “A” IBILBIDEA: LIZENTZIARIK GABE

AURRE BENJAMINAK, BENJAMINAK, KIMUAK ETA HAURRAK: 25 bizkar estiloan eta 25 crol estiloan.

2-. “B” IBILBIDEA: LEHENTASUNA IZANGO DUTE ESKOLA KIROLAREN LIZENTZIA DUTENEK.

BENJAMINAK, KIMUAK, HAURRAK: 50 tximeleta estiloan, 50 bizkar estiloan, 50 bular estiloan eta 50 crol estiloan.

♣ Parte hartzaile bakoitzak gehienez banako bi probatan eta erreleboan hartu ahal izango du parte.

♣ 4x25-ko errelebo-proba bat egongo da kategoria bakarrean (jaiotze-urtea kontuan hartu barik), mutilena, neskena edo mistoa izan daiteke, ikastetxez banatuta.

♣ Igerilariak igeritokian gutxienez txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago egon beharko dute.

Finalak ekainaren 6an 10:30ean izango dira..

Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.



XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026 **XAKEA**

ANTOLATZAILEA: SANTURTZIKO XAKE KLUBA

KATEGORIAK:

- **AURRE BENJAMINAK: 2018-19 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **HAURRAK: 2012-13 URTEETAN JAIOTAKOAK**

1. Arauak eskola kirolean bezala ezarriko dira. Honako hauek dira oinarritzkoak:

- ☐ Ukitzen den pieza mugituko piezatzat joko da.
- ☐ Soltatutako pieza lagatako piezatzat joko da (ezin izango da zuzendu).
- ☐ Partida hasi aurretik eta amaitutakoan jokalariek eskua emango diote elkarri.

2. Puntuatzeko irizpidea honakoa izango da:

- ☐ Puntu 1 irabazitako partida bakoitzeko.
- ☐ Puntu 1 atsedeen hartzeagatik.
- ☐ Puntu ½ berdindutako partida bakoitzeko.
- ☐ 0 puntu jokatu eta galdutako partida bakoitzeko.
- ☐ 0 puntu jokalaria partidaren agertzen ez bada.

3. Puntutan berdinketarik bada, txapelketaren amaieran partiden honako hausketa hauek hartuko dira kontuan:

- ☐ Emaizta partikularra
- ☐ Sonnenborg Berger p Bucholtz

4. Antolatzaile-taldeak planillak izango ditu eskuragai beren partidak apuntatu nahi dituzten jokalarientzat.

5. Txapelketetara joan ezin diren parte-hartzaileei eskatzen zaie ahalik eta lasterren jakinarazi diezailetela antolatzaileei.

6. Txapelketa Santurtiko Xake taldearen bulegoetan izango da (Jose Gurrutxaga 2 Zk)

7. Kategoria mistoak

Kanporaketak maiatzaren 6an jokatuko dira eta finalak ekainaren 6an 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Kirol hau ezagutu nahi duten umeak, Xake taldeko bulegora (Jose Gurrutxaga, 2 Zk) urbil daitezke astelehenetik ostiralera 17:00etatik aurrera.

Jaitsi aurretik, mailaren arabera, eguna eta ordua zeaztatzeko, nirekin edo klubarekin harremanetan ipini behar zarete.

Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026 **SASKIBALOIA 3 x 3**

ANTOLATZAILEA: SANTURTZIKO SASKIBALOI KLUBA

KATEGORIAK:

- **AURRE BENJAMINAK: 2018-19 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**

ARAUAK:

1. TALDEEN OSAERA ez da aldatuko txapelketa osoan zehar. Lehen egunean izen-ematea baieztatuko da eta jokalarien nortasuna egiaztatzeko argazkiekin egingo da.
2. Aldaketarik balego, antolakuntzari jakinaraziko zaio jakitun egon daitezen.
3. Taldeetan gutxienez 4 jokalaria eta gehienez 7 egongo dira. Bi errepikatzaile egongo dira talde bakoitzeko, baina bakarrak izango du jokalekuan egoteko aukera. Dagokien kategorian jokatu ahal izango dute edo, adinaren arabera, gorako kategorian.
4. Ikastetxe batek talde bat egitea lortzen ez badu, klubak beste ikastetxe batzuetako umeekin nahastuko ditu, jolastu ahal izateko.
5. Ekitaldiaren antolakuntza errazteko lehen partida hasi baino 20' lehenago egon beharko da joko-zelaian eta kontrol mahaitik pasatu beharko da.
6. Jokalekuan kirolariak eta taldearen arduradun bat baino ezin izango dira egon.
7. Saskiratzeen balioa hauxe izango da: puntu bat eremutik jaurti bada eta bi puntu eremuaren kanpo aldetik jaurti bada
8. Jokoari hasiera emateko "harria, papera edo artazia" egingo da
9. Partidari amaiera emango zaio honako bi baldintza hauetako bat betetzen denean:
Kimuak: 15 minutu edo 20 puntu.
Benjaminak: 15 minutu edo 15 puntu.
Aurre benjaminak: 15 minutu edo 10 puntu.
10. Kronoa egoera hauetan baino ez da geldituko: hutsarteak eskatzen denean eta jaurtiketa libreak egiten direnean.
11. Partida berdinketan amaitzen bada, luzapena jokatuko da eta irabazlea 2 puntu lortzen dituen lehen taldea izango da (AURRE BENJAMIN kategorian, puntu 1)
12. Check-ball-a baloi hilaren ondoren, eraso egin behar duen taldeko jokalaria bati baloiaren jabetza emateari deritza.
13. Baloiaren kontrola lortuko duen erasoko jokalaria jaurtiketa-eremutik kanpo egon beharko du, uztaiaren aurrean. Baloiaren ematen duen defentsako jokalaria eskuan edo bote baten bidez emango du eta gutxi gorabeherako metro bateko tarte bat utzi beharko du.

14. Arauzko denbora eta luzapenekoa epaileak kudeatuko ditu.
15. Sake guztiak aurreko aldetik egingo dira eta eremutik kanpo, check ball baten bitartez.
16. Talde bakoitzak 30 segundoko hutsarte bat izango du.
17. Hutsarte baloia hil egoeretan, check ball edo jaurtiketa libre baten aurretik eska daiteke.
18. Talde bakoitzak aparteko hutsarte bat izango du luzapenean.

19. Aldaketak egin daitezke “baloi hil” egoeretan, check ball edo jaurtiketa libre baten aurretik.
20. Ez da aldaketa eskatu behar.
21. SASKIRATZE baten ostean, saskiratu ez duen taldeko jokalaria batek eraso berri bati ekingo dio bote eginez edo baloia eremutik kanpora dagoen jokalaria bati pasatuz.
22. Jokalaria bat eremutik kanpo dagoela esateko bere bi oinetako bat bera ere ez da egongo eremu barruan edo eremuko marra zapaltzen.
23. Jaurtiketa batean edo jaurtiketa libre batean huts egin ostean, erasoan dagoen jokalaria batek errebotea hartzen badu, berriz jaurti dezake eremutik atera gabe. Errebotea defentsan ari den jokalaria batek hartzen badu, eremutik atera beharko da berriz jaurti aurretik.
24. Defentsan ari den taldeak baloia lapurtu edo tapoi egiten badu, jaurtiketa eremutik atera beharko da jokatu ahal izateko.
25. Baloi hilaren ostean hasitako jabetza guztiak, check-ball batekin hasiko dira pistaren aurreko aldetik eta eremutik kanpo.
26. Borroka egoeretan joko berrabiatzen da defentsan aritu den azken taldearen check-ball batekin. Jokalaria batek jaurtiketa bat egiten badu baloia eremutik atera gabe, arau haustetzat hartuko da eta saskiratzeak ez du balio izango.
27. Baloi jokoan hasiko da defendatzen ari zen taldearen check-ball batez.
28. Taldeak 6 falta egin ondoren, bonus egoeran egongo da.
29. Jokalariak ez dituzte kaleratuko faltak pilatzeagatik.
30. Falta, jaurtitzen ari den jokalaria bati egiten bazaio, honek saria izango du honako modu honetan:
 - Jaurtiketa sartzen bada, saskiratzeak balioko du eta jaurtiketa libre bat emango zaio. 7. Talde-faltaren ondoren, bi jaurtiketa gehigarri emango zaizkio.
 - Arku barrutiko jaurtiketak huts egiten badu, jaurtiketa libre bat, baina 7. Talde-faltaren ondoren 2 izango dira.
 - Jaurtiketa arkutik kanporako eremutik egin bada, 2 jaurtiketa libre.
31. Kirol-legearen kontrako falta edo falta deskalifikatzaileek talde-falta biren balioa dute. Kirolari baten kirol-legearen kontrako lehen falta bi jaurtiketa librerekin zigortuko da, baina ez baloiaren jabetzarekin. Edozein falta deskalifikatzaile bi jaurtiketa libre eta baloiaren jabetzarekin zigortuko da.
32. 7., 8., eta 9. talde-faltak bi jaurtiketa librerekin zigortuko dira beti.
33. 10. talde-faltatik aurrera, 2 jaurtiketa libre eta check-ball-arekin zigortuko dira.

Kanporaketak maiatzean egingo dira eta finalak ekainaren 6an, larunbatarekin, Mikel Trueba kiroldegian 10:00etatik 12:00etara arte.

Kirol hau ezagutu nahi duten umeak, saskibaloiko kantzara etor daitezke apirileko astelehen eta asteazkenetan 18:00ean.

Izena emateko azken eguna martxoaren 18a izango da.

Joko-zelaia eta baloia	Zelai erdia, baloiaren neurria 6 eta 7
Taldeak	4-7 jokalar
Jabetza hasieran	“Harria, papera eta artazia” jokatu da. Irabazleak erabakiko du noiz nahi duen lehen jabetza izan: partidaren ohiko zatian edo luzapenean.
Puntuazioa	Puntu 1eremuaren barruan eta 2 puntu eremutik kanpo.
Partidaren iraupena eta puntuen muga	15 minutu edo mailaren arabera puntuak.
Luzapena	2 puntu lortzen dituen lehen taldea (aurre benjaminen kasuan puntu 1)
Jaurtiketa libreak Jaurtiketa-falta denean.	Jaurtiketa libre 1 2 jaurtiketa, falta arkutik kanpora egiten bada.
Sakeak	Sake guztiak aurreko aldetik egingo dira, eremutik kanpo eta check ball baten bitartez.
Talde-falta muga (Bonusa)	6 falta
Zigorra 7., 8. Eta 9. falta bete ondoren	2 jaurtiketa libre
Zigorra 10. talde-faltatik aurrera.	2 jaurtiketa libre + baloiaren jabetza
Falta teknikagatiko zigorra	Jaurtiketa libre bat, ez da baloiaren jabetza aldatzen
Kirol legearen kontrako faltagatiko zigorra	2 jaurtiketa libre, ez da baloiaren jabetza aldatzen (salbuespena talde-falten kasuan: 10etik gora 2 talde-falta gisa hartzen da)
Falta deskalifikatzaileagatiko zigorra	2 jaurtiketa libre + baloiaren jabetza 2 talde-faltaren balio bera du
Saskiratze osteko jabetza	Saskiratu ondoren, puntuak jaso dituen taldeak jokoan jarriko du baloia, nola eta boteak emanez edo paseak eginez eremutik irten arte. Defenditzen ari den taldeak ezin du presionatu, erasotzailea ez kargako zirkuluan dagoenean.
Baloi hilaren osteko jabetza	Check-ball-a
Defendatzeko errebote edo lapurketa osteko jabetza	Baloia eremutik atera behar da erasoa egin ahal izateko.
Borroka osteko jabetza	Defentsarako jabetza
Aldaketak	“Baloi hil” egoeteran.,chack-ball baten aurretik. Arbitroari abisatu gabe.

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026

ARRAUNKETA (ARRAUN-ERGOMETROA)

ANTOLATZAILEA: ITXASOKO AMA KLUBA.

KATEGORIAK:

- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **HAURRAK: 2012-13 URTEETAN JAIOTAKOAK**

ARAUAK:

- 1. Txapelketa arraunketa-tresnetan (arraun-ergometroak) egingo da arraun pabiloian, EZ da itsasoan egingo.**
- 2. Kontua ahalik eta metro gehien egitea da ezarritako denboran:**
 - a. Benjaminak: Minutu bat.**
 - b. Kimuak: Minutu eta erdi.**
 - c. Haurrak: Bi minutu.**
- 3. Izena eman duten kideek ekainaren 6an, larunbatarekin, jardungo dute 11:00etik 13:00era bitartean ARRAUN PABILOIAN.**

Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

XXVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026

PADEL-A

**ANTOLATZAILEA: TENIS ETA PADELEKO KAI ALDE
KIROL-KLUBA.**

KATEGORIAK:

- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
 - **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**
 - **HAURRAK: 2012-13 URTEETAN JAIOTAKOAK**
-
- Koadro mistoetan jokatzeari buruzko litizak, koadroak bereizita garatzeko inskripzioak ez balego.
 - Izen ematea bikoteka egingo da, ahal dela.
 - Kanporaketak aldeztu aurretik deituko dira, behar besteko aurrerapenarekin. Aurkezten ez denak kanporaketa galduko du, baina antolatzaile-taldea ahaleginduko da deialdira joan direnek lagunarteko partida bat jokatzeko aukera izan dezaten.
 - Kanporaketak maiatzaren 15 izango dira Mikel Trueba kiroldegian, lehentasunez larunbat goizean, oraindik zehaztu ez diren orduetan.
 - Antolatzaile-taldeak palak lagako dizkie horrelakoak eskatzen dituzten parte-hartzaileei.
 - Antolatzaile-taldeak parte hartzeko "A" ibilbidean eta Eskola lizentzia edo Federatua duten lizentziatarako "B" ibilbidean izena emateko eskabideak banatuko ditu (erraketa edo palako edozein kirolari). Joko-maila adierazi beharko da inskripzioak egiterakoan "Baxua, Ertaina, Altua".
 - Joko-araudia ofiziala izango da, baina atalik zailenak kanpo geratuko dira, Eskola arteko Kirola programaren irizpideei jarraituz.

**Finalak 10:00etatik 13:00etara bitartean ekainaren 6an, larunbatarekin,
Mikel Trueba kiroldegian.**

Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.

XVIII. ESKOLA ARTEKO OLINPIADA 2026 **ESKUPILOTA**

ANTOLATZAILEA: SANTURTZIKO ITSASALDE PILOTA TALDEA

KATEGORIAK:

- **AURRE BENJAMINAK: 2018-19 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **BENJAMINAK: 2016-17 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **KIMUAK: 2014-15 URTEETAN JAIOTAKOAK**
- **HAURRAK: 2012-13 URTEETAN JAIOTAKOAK**

1. Taldeetan gutxienez kide bat egongo da. Partidak modu orekatuagoan antolatzeko, haurrek jolastuko dute ahalik eta partida parekatuenak egiteko

2. **A) ESKUPILOTA TALDEAN ARI DIREN UMEAK:**

Partidak 10na tantoko bi jokotara jokatuko dira eta berdinketarik bada, 5 tantoko hirugarren joko bat jokatuko da. Lehenengo bi jokoetan aurrelari-atzelari postuak txandakatuko dira eta berdinketa hausteko jokoan libre izango da.

B) ESKUPILOTA TALDEAN ARI EZ DIREN UMEENTZAT ETA KLUBEKO GAZTETXOENTZAT:

Partidak 40 tantora helduta amaituko dira, tanto zeinek egiten duen kontuan hartu gabe.

3. Sakea egiteko bi aukera egongo dira, sakean bigarren huts egiten bada, tantoa aurkariarentzat izango da.
4. Sakea txandaka egingo da, tantoa nork egin duen kontuan hartu gabe.
5. Sakearen distantzia jokalaria bakoitzaren gaitasunaren arabera izango da eta ez adinaren arabera.
6. Pilota bigunekin jokatuko da kasu guztietan.

Finalak ekainaren 6an, larunbatarekin, jokatuko dira (16:30etik 19:00etara arte) Mamariga pilotalekuan.

Eskupilota probatu nahi duen edozein umek, denboraldia irauten duen bitartean, Mamariga pilotalekutik, astelehenetan 17:00etatik 18:00etara edo Serantes pilotalekutik astearte, asteazken eta ostegunetan 17:00etatik 18:00etara.



**Santurtzi
Kirolak**

Ikastetxeren batek jardunaldi batzuk egin nahi baditu, jatorria, bilakaera eta dauden modalitateak ezagutzeko, klubarekin harremanetan jar zaitezke santurtzipelotazale@gmail.com helbidean.

Izena emateko azken eguna apirilaren 17a izango da.